



## 21.BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida  
Alarma estatuko 21. eguna. 2020ko apirilaren 5a, igandea.

### Hilaren 4ko, ostiralako, Kudeaketa / Jarduerak

*Hemen pertsona ezin da neurtu  
diruaren arabera  
asko atzean geratuz gero  
ezin da egin aurrera  
gizaki egiten gaituen hori  
bizitza da, ez papera  
Denok osatzen dugu mundu hau  
inor ez dago sobera  
Boluntariora sare sendo bat  
goizetik eta gauera  
kezka, ardura, ekintzailtza  
eraldatzaile jarrera!  
Zuek egiten ari zarete  
garai zailotan gainera...  
askok nahi dugun biharko mundu  
berriarentzat harrera  
Jon Maia*

**KOMUNIKAZIOA.** 20. Buletina sareetan zabaldu da eta komunikabideei helarazi zaie.

#### **BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK**

Gaur **itzultzaile taldearen lana** eskertu nahi dugu. Lehenengo buletinetik hasita lau pertsonen eman zuten izena, beren gain hartuz buletinaren eguneroko itzulpena. Itzulpena premiaz egin behar dute Buletina, goizean zehar, dagoeneko dauzkan ehunaka irakurleei bidaltzeko.

**Ekarpen ekonomiko solidarioari** dagokionean, **142 pertsonen** emandako diru-sarrerak **7.567 €** izan dira guztira. Gaur, ekarpen solidario honi esker egin ditzakegun gastuen zerrenda aurkezten dizuegu:

3.253,72	Janaria
1.415,00	Logelen fidantza aurrerakina
373,48	Joan-etorrietarako laguntza (billeteak+gasolina)
1.103,50	Hainbat gastu (mugikorak kargatzea, keroseno eta butanoa, elektrizitate mangera, Farmazia, arropa, motxilak/dutxak, mikrouhina...)
<b>6.145,70</b>	<b>Gaur arteko gastuak</b>

Janarien gastua oso handia ez izatea lortzen ari gara ostalaritza establezimendu, erakunde (Elikagai Bankua, Zaporeak, Medicus Mundi, Zurriola ikastola) eta saltokiek egiten duten **ekarpen solidario handiari** esker. Era berean, banakako pertsonen ere ekarpen garrantzitsua egiten dute arropa dela edo eskatzen ari garen bestelako gauzak direla. **Geure eskerrik beroena hauei guztiei.**

Eguneroko **Gandarias** eta **Pandora**-ren elikagai ekarpenei **Cívico 14** gehitu zaie gaur.



## 21.BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

#### 10. PILULA

#### Bazterkeria eta pobrezia egoerei aurre egiteko Funtsa

Martxoaren 31n Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia bildu zen, Eusko Jaurlaritzaren eta arlo horretan lan egiten duten zazpi erakunderen parte-hartzearekin. Jaurlaritzak eskatu zien martxoaren 24an onartutako 10 milioi euroko zuzkidura izango duen funtsaren bidez finantzatu diren proiektuak aurkezteko. **Hauek dira funtsaren helburuak:**

*Osasun-krisiak eta alarma-egoerak etxerik gabeko pertsonen egoeran duten berehalako inpaktu sozialari erantzutea (ostatua, oinarritzko premien estaldura, gizarte-arreta....).*

*Beste erakunde batzuek baztertze-egoeran dauden pertsonen eskaintako arreta osatzea, egoitza-zentroetan eta beste baliabide batzuetan artatuta daudenak (laguntza psikologikoa ...).*

*Osasun-krisiaren eta alerta egoeraren inpaktu soziala eta ekonomikoa murriztea osasun-krisia baino lehen pobrezian zeuden etxeetan eta enplegua, etxebizitza edo horrelakoak galdu dituzten edo gal ditzaketenetan edota haien diru sarrerak murriztuta dauzkatentzat, arreta berezia jarritz, bi kasuetan, haurren pobrezia.*

*Eusko Jaurlaritzak, funtsari esker, erakundeen bitartez, bi laguntza mota gaitu ahal izango lituzke: alokairua ordaintzeko laguntzak eta baliabiderik ez duten pertsonentzako elikadura-laguntzak (DSBE/EPO edota beste baliabide edo laguntzarik jasotzen ez dituzten pertsonak).*

*Halaber, Eusko Jaurlaritzak, funtsaren bidez, eta betiere udalekin adostuta, honako helburu hauek dituzten proiektuak garatzen lagundu ahal izango luke: tamaina txikiagoko baliabideak martxan jartzea (50 pertsona baino gutxiago)/jarduerak antolatzea, harremana eta entzumena sendotzeko ..., hezkuntza langileak indartuz./Laguntza eta euspen emozionala, aurrez aurrekoa, diziplina anitzeko talde batek (medikua+psikologoa+erizaina) osatutako unitate mugikorren bidez.*

*Baita ere, zaurgarritasun-egoeran edo bizileku-bazterketan dauden eta prestakuntza eta komunitate prozesu bat egiten ari diren gazte atzeritarrei, batzuetan kaleko egoeran daudenak (etxerik gabe), alternatibak eskaintzea, etxe bat eta euskarri bat izan dezaten gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbidearekin jarraitu ahal izateko.*

Zalantzarik gabe, **baztertze eta pobrezia egoeretan dauden pertsonen egoera hobetu dezaketen neurrien** aurrean gaude. Ikusi beharko da zertan gauzatzen diren, zenbat pertsona izango diren onuradun eta zenbat ez, zenbat denboran zehar luzatuko diren... Espero dezagun Udalak funts hori baliatzea baita ere *Atano* pilotalekuan dauden pertsonak baliabide egokiago batean sartzeko.

Uste dugu, halaber, laguntza horiek erakundeek aurkezten dituzten proiektuen bidez bideratzea instituzioek esparru horretan beren gain hartzen jarraituko dituzten erantzukizunen sendotze gisa ulertzen dela. Ez ordezkapen gisa.

#### **Funtsa etxegabe guztientzat zabal dadila, orain!**

**Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia**

**Kontaktua:** [redacogidaciudadana@gmail.com](mailto:redacogidaciudadana@gmail.com) 675 71 53 15

**Facebook:** @HiritarronHarreraSarea Instagram: @RedAcogidaCiudadana

**Dohaintzak:** cc ES44 2095 5013 70 9119577666

**ZABAL EZAZU, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.**